

Noticias de Gipuzkoa

Gipuzkoa Reala Cultura Actualidad Opinión Deportes Economía Vivir ON Participación

Política **Sociedad** Sucesos Unión Europea Mundo Albisteak Deusto Positivos en coronavirus

ÚLTIMA HORA | Comparecencia de Urkullu

Noticias de Gipuzkoa » Actualidad » Sociedad

900 20 30 50 asistencia sanitaria

Etenaldia txotx denboraldian

SARA IBARGUREN | 14.03.2020 | 01:23

Hernani eta Astigarragako sagardotegiek gutxienez 15 egunez sagardotegietako atearak ixtea erabaki dute, koronabirusa zabaltzea ekiditeko.

Sagardo Berriaren Egunarekin batera hasi zen aurtengo txotx denboraldia Astigarragako Alorrenea sagardotegian, urtarrilaren 15ean. Duela bi hilabete koronabirusa urruneko zerbait zela pentsatzen zen eta sagardotegiak beraien ohiko jardunean ibili dira orain arte.

Panorama erabat aldatu da, ordea; alarma egoeran gaude gaurtik aurrera eta Hernani eta Astigarragako sagardotegiek, printzipioz behintzat, 15 eguneko etenaldia egingo dute egoera hobetu zain. Sagardotegietako nagusiek ixteko neurria "beharrezkotzat" jo badute ere, martxoa txotx denboraldiko garairik indartsuena izaten denez galera garrantzitsuak pairatuko dituzte horren ondorioz.

Hernaniko Zelaia sagardotegia esaterako, beteta zegoen asteburu honetarako eta galera "ikaragarria" izango dute. "Martxoa da gure denboraldiko garairik jendetsuena eta datozen asteburu guztiak beteta zeuden, pentsa zer nolako galera", azaldu zion atzo egunkari honi Maialen Gincerain Zelaia sagardotegiko nagusietako batek. Orain arte, aurreko urteen antzera lan egin dute eta asteburutan izaten dute jenderik gehien. "Momentuz 15 egunez egongo dira itxita sagardotegiak eta gero auskalo zer gertatuko den", esan zuen Gincerainek.



Astigarragako Zapiain sagardotegia atearak itxita, atzo. **Ruben Plaza**



104 nuevos casos en Eusk en Gipuzkoa

En Euskadi se han registrado 104 nuevos casos de COVID 19, con lo que la cifra total de c



DIRECTO. El Vasco anuncia medidas adoptadas por el comité asesores

Goiko Lastola sagardotegiaren-tzat "asteburu potenteena" zen hau. "Gure sagardotegia txikia da, 80-100 pertsona inguru sartzen dira; larunbat eguerdian beteta zegoen, gauean ia beteta eta igandean ere nahikoa lan bageneukan hitzartuta", azaldu zuen bertako arduradunak. Aipatu zuenez, urtarrilaz geroztik ia larunbat eguerdi guztiak beteta omen zeuzkaten denboraldi osorako, jende gehien orduan joaten baita: "Beste urte batzuetan denboraldiarekin batera jendea pixkanaka hasi izan da etortzen; baina aurren hasieratik izan da jendetsua, larunbat eguerdian batik bat".

Herenegun eta atzo Goiko Lastolan erreserba asko atzera bota ditu jendeak, eta gainerakoei deitu egin diete jakinaren gainean izateko. "Jendearen artean beldur handia sumatu dut; astelehenean erreserba asko egin ziren eta asteazkenetik aurrera jendeak beldurtuta dei-tzen digun", azaldu zuen.

Aste honetan, koadrila batzuetan jendeak baja eman du eta hainbatek deitu omen dute gutxiago etorriko zirela esanez Goiko Lastolara. "Azkenean, dena bertan behera utziz amaitu dute guztiak", esan zuen arduradunak. Bere iritziz, sagardotegiak ixtea hobe da zabaldua mantentzea baino, baina zerbitzu guztiak itxi behar direla uste du: "Bizitzen ari garen ziurgabetasun eta beldur honekin hobe da ixtea, baina zerbitzu guztiak itxi behar dira: autobusak, tabernak, enpresak... denak. Sagardotegiak itxi eta jendea herrian tabernetan badabil, ez dugu ezertxo ere lortuko", azpimarratu zuen.

Olaizola sagardotegia ere asteburu guzti hauetarako beteta zegoen. "Guretzat galera ikaragarria dakar ixteak ikusita hiru hilabetetan egiten dugula urte guztiko diru-sarrerarik handiena, guztia ez esateagatik", adierazi zuen Asier Olaizolak, bertako nagusiak.

Hernaniko sagardotegietara ingurukoez gain, kanpotik ere joaten da jendea eta gune horiek koronabirusa zabaltzeko "foku garrantzitsuak" izan daitezkeenez, ixtea erabaki zuten atzo. "Oraindik denboraldi erdira ez gara iritsi eta garairik indartsuena hauxe izaten da, apirila erdira arte. Hala ere, gauzak nola dauden ikusita, ixtea erabaki dugu", azaldu zuen Olaizolak. Bestalde, Eusko Jaurlaritzatik laguntzak iristea nahiko luke: "Nahiz eta gure borondatez itxi ditugun, kontuan hartuko dutela espero dut", esan zuen.

Astigarragako Zapiain sagardotegian ere jende asko espero zuten asteburuan. "Gure upeltegira jende gehiena oraintxe etortzen da sagardoa eta sagardotegia ezagu-tzera, eta jendeak ez du horretarako aukerarik izango", adierazi zuen Juan Felix Zapiainek, bertako nagusietako batek. Bere iritziz, horrek salmentetan ere izango du eragina: "Urtean zehar sagardoa botilatik edaten denez, jendeak produktua ezagutu ezean horrek izugarrizko eragina dauka".

Hemendik 15 egunera auskalo zer gertatuko den, baina ordura arte atek itxita mantenduko dituzte.



**Un fallecido
agredido cor
blanca en Do**



**Trump decla
emergencia
EEUU para lu
la pandemia**

Notic

Más información

Un txotx que une Tolosa y Senegal.

Txinparta politeko sagardoa.

"Sagardoaren kultura sagardotegietatik harago doa".

Temas relacionados:

Coronavirus

Idioma Euskera

Txotx

TAMBIÉN TE PUEDE INTERESAR



Con una firma evitarás que miles de mujeres sean víctimas de violencia sexual



El crossover más radical

Nuevo Kia XCEED. Emociones Fuertes

Lo último

1. Iñaki Goikoetxea: "Xistera egi lana izugarria da"
2. 104 nuevos casos en Euskadi, Gipuzkoa
3. DIRECTO. Urkullu anuncia las adoptadas por el comité asesores
4. Aquel pánico
5. Trump, fiel a principios ignorados
6. Los buenos futbolistas piden l
7. Un fallecido tras ser agredido blanca en Donostia
8. Con la música a otra parte
9. La RFEF asume que el parón se más tiempo
10. Papel Aralar ve reconocido su innovador en el sector del pap



El secreto de beber un vaso de agua caliente por las mañanas



¡Están prohibidos!

10 alimentos que debes evitar si quieres adelgazar



Así se gana mucho dinero con Amazon sin comprar acciones



¿Lo sabías?
Porqué me pican siempre los mosquitos. (¡Y sólo a mi!)



El plan perfecto

Las 10 mejores cascadas de España



SUV con etiqueta ECO

Descubre el nuevo híbrido



¡Stop Ladrones!

Ladrones están asustados por este sistema económico de videovigilancia

POWERED BY ADDOOR

Bolsas para organizar

¿Liada con la maleta? Tu solución desde 6€

Operación mecánica en Confortauto

Con la operación mecánica de Confortauto, detectas antes las averías con su revisión visual gratuita.

Lo mejor tiene

Existe una vida mejor y está en tu nuevo hogar. Encuéntralo ya con hasta un 35% de dto.

20 Rincones de España para visitar este verano

Descubre 20 rincones escondidos por nuestro país y aprovecha para visitarlos este verano

Ford Ranger

Ganador del premio International Pick-Up Award 2020

Yoigo

Necesitas cambiarte de Operadora? Elige entre las Mejores Tarifas de Yoigo.

Otras webs de Grupo Noticias

Deia
Diario de Noticias
Diario Noticias de Álava
Onda Vasca

Promociones
Publicidad
Suscríbete a Noticias de
Gipuzkoa

Suscripción por RSS
Newsletters
Auditada por OJD
Distribución
Trabajos de impresión



© Diario de Noticias-Edición Digital | Avda. Tolosa 23 20018 DonostiaTel 943 319 200

[Aviso legal](#) | [Condiciones de uso](#) | [Mapa web](#) | [Contacto](#) | [Cookies](#) | [Política de Privacidad](#)